

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko urriaren 26a · 399. zenbakia



Bizitza idiei emana

Hondartzara bidean, ohikoa da olidendarrak idiak entrenatzen ikustea. Bazkaloste ederra izan dugu palotetan duten txabolan.

Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia,2 -behea (20810 Oriz)
 Tel./Fax: 943 134 717
 Mugikorak: 638 610 343 / 638 610 349
 galebask@hotmail.com

garay
manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eu

1989tik sukalde altzarietan lanetan

HITZORDUA ESKATU ETA
 LANTEGIRA HURBILDU
 Olabidea aldea 1
 (Errotaberri Industrialdea)
 20.800 Zarautz

943 13 31 09

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltzerotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatutak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
 konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 740 279

Sinergia | fisioterapia & berrikuntza

• Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zainfatuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaikotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haundunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.

• Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajek, drenatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominalekako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

943 13 05 77
 685 71 85 95

Real Ordo 1, Behea - Oriz
www.garay.eu

XS arkitekтура

obrak
 proiektuak
 errehabilitazioak
 txostenak
 eraikuntza zerbitzuak
 ITEak
 eraikinen mantenua

Kale Nagusia, 2 - Behea (20810 Oriz)
 943 13 43 30
 638 610 349
www.xsarkitektura.com

Sagasti
LEIHOAK

Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 13 71 30
sagasti@sagastileihoak.com
 Auzentze kalea, 83
 20810 Oriz

Kalitatezko materialak
 PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
 Salmenta osteko zerbitzua
www.sagastileihoak.com

Carpinteria

Joseba
 Auzentze

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROTZEGIA OROKORREAN

IZARRA ELEKTROGAILUAK 12 HILABETE-INTERESA%0

PHILIPS 32" **218€**

BALAY **280€**

LEIHOA **299€**

TERMO **60€**

ARMARIOA **49€**

BOSCH • BALAY • SIEMENS
 AEG • ZANUSSI • ELECTROLUX
 LIEBHERR • MIELE

Ertebe Ordoak, 11 • Tel: 943 83 38 8 • 20800 Oriz (Gipuzkoa)

399

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Miriam Garcia
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkuadun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Andoni Atorrasagasti
Aloña Iribar
Iñaki Iturain
Garbiñe Manterola
Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Manex Dorronsoro (Orio)
Endika Ruiz (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza S.A.L (Lasarte-Oria)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 4.000 ale

KARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. Karkaran argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Andoni Atorrasagastiri jarri dio puntua Borja Agirresarobek: *Zer moduz bizi zera Zumaia aldean?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

ANDONI ATORRASAGASTI (DOINUA: ARANORA JOAN ZIRAN I)

1

Zer moduz bizi zera Zumaia aldean?

gaizki ez baina hobe,
aukeran *Caldean*,
beti eramaten dut
kartera aldean,
hemen ere ez baita,
ezer debaldean.

2

Semetxo bat ere bai,
sortu deu mundura,
horiz eta marroiez,
pasa digu uda,
oraingoz ez darabil,
gorria gustura,
nolako a ezpala,
halakoa zura.

3

Arraun kontuei ezin,
diot egin uko,
Zumaian ni neu bainaiz,
Cabeza de Turco,
oriotar seilua,
iritsi orduko,
inork nire lekua,
ez luke hartuko.



Zumaiaiko herrigunea. IHINTZA ELUSTONDO/UROLA KOSTAKO HITZA

Hurrengo bertsolaria:

Zigor Esoain

Puntua:

Zer egingo zenuke
alkate bazina?

Badatuz San Nikolas jaiak!

Umbleble! Lehengo urtean jai hartu ondoren, indarrak hartu eta aurten ere abenduko festei begira jaiak egiteko gogoz gatozkizue. Badira urte batzuk gazte lagun talde bat biltzen hasi ginela jaiak egiteko gogoz deiadarrak, babarrun janak, haur tailerrak, kontzertuak... antolatzen.

Aurten hasiera batean babarrun jana berreskuratzeko asmoz gabil-tza. Eremu egokia iruditzen zaigu jaiak aspaldian berarekin ezkutuan daraman borondatezko lana egiteko. Baita ere, harreman osasuntsuak sortzeko, jende berria ezagutzeko, adarra jotzeko, elkar laguntzeko...

Batzar ireki baten deialdia egiteko aprobeixatu nahi ditugu lerro hauek. Azaroaren 5ean, astelehena, arratsaldeko zazpitan kultur etxean. Barne grina pizteko balioko dizu! Nahiz Orion jaiak izan edo denbora gutxi eraman Orion bizitzen, azaldu lasai! • **Babarrun jana**’.

Gazte Festak 2018

Gutun honen bidez Orioko Udalak 2018ko Gazte Festetako antolatzaile eta partaideak zoriondu nahi ditu. Zailtasunak zailtasun, festa bikainak antolatzeko moduan izan dira. Partaidetza sustatuz, eredugarri den festa bat antolatu dute.

Ondorengo belaunaldietara zabal-tzea espero dugu baloreez betetako festak hauek. Berdintasuna, jasagarritasuna eta kontsumo arduratsuan oinarritutako festa bat izateaz gain, inguruarekin errespetu osoz jokatu dutela iruditzen zaigu.

Plaza ingurua oso txukun gelditu zen, festa ostean eta herrikoak diren baliabideak egoera bikainean buel-tatu ziren udalera. Zorionak beraz eta segi horrela! • **EAJ-PNV Oriu**.

Errigorak 5 urte

Errigoraren sorreratik bost urte be-
teko dira honezkero.

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitartuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutuna-
ren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskuti-tzak laburtzeko eskubidea.

2012ko udazkenean Zazpiak Bat Harreman Sarearen eskutik eta Nafarroa hegoaldeko bi ekoizleren produktuekin Argia Ikastolarentzat 34.000€ lortu ostean, 2013ko urrian Errigora ekimena aurkeztu eta bere lehenengo kanpaina abiatu genuen AEK, Ikastolen Elkarte eta Sor-tzenekin batera, Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka lelopean.

Herritarren erantzunak ia usteka-bean harrapatu gintuen: 8.000 saski baino gehiago banatu eta 112.000€ bideratu genituen Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara.

Urte berriarekin, kontsumo-ohi-
turetan eragiteko planteamendua egin genuen, udazkeneko kanpaina-
ren emaitzak lagun.

Urruneko ordez, egunerokoan bertako produktuei tokia egiteko bide bat eskaintzeko asmoarekin, Nafar hegoaldeko uzta eskutik esku-
ra kanpaina proposatu genuen.

Ideiarekiko zalantza guztiak uxa-tu zituen beste behin ere jasotako oliba-olio birjina estra eta kontser-
ba-sorten eskaera kopuruak: 30.000 litro olio eta 50.000 ontzi kontserba.

Ordutik igaro diren 4 ikasturtee-tan zenbakiak gora eta gora egin dute eta, era berean, egitasmoaren inguruan osatu den komunitatea hazi eta hazi ibili da: gero eta kontsumitzaile arduratsu gehiago gara,

bai, baina baita gero eta ekoizle gehiago ere, eta boluntario gehiago ere bai, gero eta herri gehiagotan.

Eta gero eta sakonagoak dira batzuek besteekiko ditugun loturak. 5 urte daramagu #EUSKARARIpuzka. Urteotan, Nafarroa hegoaldeko eus-kalgintzari 800.000€ko ekarpena egin diogu herritarrek euskaldun-tzen jarraitzeko.

Baina, diruaz gain, urtez urte bertako euskalgintzako lagunek jasotako babesa eta animoa euroak bezain ezinbesteko zaizkigu aurrera jarraitzeko.

Era berean, zonaldean euskarak espazio berriak irabazteko eta gure hizkuntzarekiko jarreraren eragiteko pausoak eman ditugu, oraindik egi-teko asko dugun arren.

5 urte daramagu #ESKUTIKesku-
ra gure ekoizpen merkaturatze eta kontsumo ohituretan eragiten. Gero eta ekoizle gehiago iparraldera be-gira jarriz; gero eta kontsumitzaile gehiago hegoaldera begira.

Eta, gure txikitasunean, Nafarroa hegoaldeko ekoizpenean eragite-
ko ahaleginean aritu gara, zenbait ekoizle produkzio ekologikora hur-bilduz edo eremu berriak lantzeko nekazariak eta ekoizleak harrema-
netan jarriz.

Labur esanda, 5.urteurrena os-patuko dugu aurtengo ikasturtean, urteotan egindakoa eta lortutakoa azpimarratzeko tartea hartuz.

Alabaina, orain artekoa bide luze baten lehen pausoa baino ez da izan. Oraindik urteurren asko ospatu nahi dugu, orain arte egindakoa baino askoz gehiago baitugu egiteko eta lortu duguna baino askoz gehiago lortzeko.

5.rteurrenaren ospakizuna, beraz, amaiera klabean baino, ziklo berri baten hasiera gisa ulertzen dugu.

• **Errigora Herrigara ekimeneko taldea.**

Legealdi amaierako galdetegia

Legealdia bukaerara iristen ari zaigu

eta EHBildutik herritarren iritzia eta iradokizunak entzun nahiko gemituzke, legealdi honetan egin den lanari buruz eta, baita ere, hurrengoari begira egitea espero duzuenari buruz.

Horretarako, galdetegi txiki bat prestatu dugu. 5 minutu eskatu nahi dizkizuegu galdetegi hau bete eta, denon artean, 2019an hasiko den legealdi berria elkarrekin prestatzeko.

Bidali mesedez zuen e-posta ehbilduorio@gmail.com helbidera, eta galdetegia betetzeko zuzeneko es- teka bideratuko dizuegu. Mila esker aldeztatik. • **EH Bildu Orio**

KARKARA kideen esker ona, Oteiza astearen harira

Ederra izan da Oteiza astea. Guri behintzat, gorputz eta arima elikatzeke balio izan digu bizitako guztiak.

Eskerrik beroenak Orioko Udalarri, laguntzagatik eta gure proposamen- nei bide emateagatik. Zinegotzi baten adierazi zigun bezala, guk ere haxe pentsatzen dugu: *gauzak hobeto*

EZKONDUTAKOAK

- Aritz Ochoa de Eribe eta Patricia Alves Dias, irailaren 4an.
- Zuriñe Melchisidor Calvo eta Luis Tomas Gonzalez Canellada, irailaren 13an.
- Fernando Madrazo Aguirre eta Naiara Fonseca Galarraga, irailaren 18an.
- Andrea Lopez Martin eta Victor Gerardo Martinez Esquiroz, irailaren 18an.
- Marius Ilie eta Oana Petronela Oita, irailaren 20an.
- Nestor Pierola Eguia eta Enea Otermin Aguirrezabala, irailaren 21ean.

eta errazago egiten dira elkarrekin.

Erredakziotik, besarkada estu bana Oskar Alegriari eta Bernardo Atxagari. Antolaketa lanak errazteaz gain, erakutsitako gertutasunagatik eta hitzaldian emandako mailagatik.

Imanol Urkizuri ere bai, ohi bezala, hitzaldiko xehetasun tekniko txiki- kiena zaintzeaz gain, ikasleen omen- aldian errazteko *Androkanto* kantua grabatzeagatik. Noski, ikasleei ere gure txaloak, egindako esku-lan ede- rrengatik!

Ia ahaztu zaigu Jabier Zabaleta, Oteiza asteko kartelen egilea. Zu bai artista!

Besarkadak ere Iruñeko eta Orioko Aldapa elkarteetako hainbat lagunentzat. Gu berriz ere bazkaltzera joateko prest (noski, Alustizako Gabinoren autobusean!). Eta MugMus laborategikoei ere bai, Oteiza astea hain dotore ixteagatik. Ikuskizun bikaina eman zenuten plazan!

Bukatzeko, muxu bana asteko ekintza desberdinetan parte hartu duzuen guztioi. Plazera izan da zuek ondoan izatea. Aurrerantzean ere kultur jarduerak antolatzen jarraitzeko asmoa dugunez, adiorik ez! •

Karkara kultur elkarte.

HILDAKOAK

- Gregorio Gonzalez Garcia, Orion, irailaren 25ean. 81 urte.
- Manuel Atorrasagasti Manterola, Orion, urriaren 2an. 69 urte.
- Kontxi Iturralde Beloki, Aian, urriaren 11n. 59 urte.
- Maria Isabel Zuloaga Azkue, Orion, urriaren 17an. 93 urte.

Azaroaren 21ean, Iruñera egun pasa

Iruñera eskurtsioa antolatu dugu Zaharren Babeslektatik. Goizeko 09:00etan Oriotik atera eta 11:00etan iritsiko gara Nafarroako hiriburura. 14:00etan bazkaria egingo da, Café Niza jatetxean.

Menua: entsalada mistoa, pikillo piperrak, risottoa, azpizuna patatekin eta pikillo piperrekin, *torrijak* eta edariak.

Txartelak erosteko, eguneratuta eduki behar da sozio txartela.

Autobus baterako baino jende gehiago apuntatzen bada, zozketa egingo da.

Bigarren autobusa antolatzeko, gutxienez, 20 lagun apuntatu behar dira.

Txartela salgai ipiniko dira datoren azaroaren 12an, astelehenarekin, goizeko arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. Interesatuak Zaharren Babeslekura jo behar dute tiketak erosteko. Txartel bakoitzaren prezioa 35 eurokoa da.

Animatu! Egun paregabea igaroko dugu eta!

• **Txomin iribar.** Zaharren Babeslekuk presidentea.

JAIOTAKOAK

- Naia Sanchez Romo, irailaren 28an.
- Inka Verhegge Larrañaga, irailaren 29an.
- Diego Steven Betancourt Galeano, urriaren 1ean.

Eskela edo urteurreneko gogoan- garria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Atxaga, Alegria, Garikano eta Karkarako kide batzuk. KARKARA

Arimen ehiztaria

“Oteizaren figura herritarron artean zabaltzea zen asmoa eta, neurri batean, lortu dugula esatera ausartzen gara.”



Oriotarrak Iruñean, Altzuzako Oteiza Museoa bisitatu ostean. KARKARA

Urriari Urri izena jarri ziotenean zertaz ari ziren ondo asko dakigu, negutegietatik kanpo lurrak emandakoa urria baita garai hauetan. Bestelako uzta, ordea, ugaria izaten da, baita aurten ere. Gure hiru artista handiek zer esana eman dute: Benitok diskoa atera du, eta kontzertuak ematen dabil han eta hemen. Anduren obra nagusienetako batek *Otto Pettek* 25 urte bete ditu eta aztertua izan da hainbat literatur adituren aldetik.

Eta hirugarrenak, hirugarrenak zer? KARKARAKOON partetik ez dugu nahi geratu hau esan gabe: Zoragarria izan da! Atxaga eta Alegriaren azalpenak entzutea, herritarren pasadizoak jasotzea, dokumentala ikustera joan ziren ikusleen arreta ikustea, haurren kantatzeko indarra, beren eskulan ederrak, Oteiza museoko isiltasuna, hilobiaren aurreko *momentikoa*, Iruñeako bazkariko arkume alkatxofadunak, Gaztelu plazako sagarra, plazan ikusi genuen *Esku (h)arriak* obrako dantzarien figurak, pilota eta txalapartaren uztarketa, Egañaren bertso zorrotzak...

Oteizaren figura eta ekarpena oriotarron artean zabaltzea zen asmoa, eta neurri batean, lortu dugula esatera ausartzen gara. Hala ere, ez pentsa atzera begira bertan-egongo egongo garenik. Gure herrietako artista gazte berriei atzetik segitzen, adi, jarraituko dugu.

Eta Oteiza astea galdu duzuenoi, ba aste honetan bertan Xabier Gantzarainek esandakoa ekarriko dizuegu bukatzeko: *Oteiza beti da berreskuragarria; hain da erradikala artearekiko bere konpromisoan, asmo esperimentalean... Figura oso polemikoa da, baina abiapuntu bat da artista guztientzat!*



Anjel Lertxundi idazlea, Zarauzko hondartzan. ARITZ MUTIOZABAL



Joango al zara Aiako XIX. Kintopeko Idi Probetara?



“Ikustera joango naiz. Guretzat oso berezia da”

Jende mordoa etortzen da idi-probetara: Azpeitia ingurutik, Bizkaiatik eta Euskal Herriko hainbat tokitatik etortzen da jendea probaz goatzera.

Aia oso plaza ospetsua da idi-dema munduan. Aiarrontzat tradizio handiko ohitura da. Ni neu urtero joaten naiz dema plazara ikuskizunaz goatzera. Orain dela 20 urte idiak banituen, deman jarduteko; orain, ordea, ez.

Lastima da probetara gazte gutxi etortzen dela. Asteburuan izan ohi denez, gure gazte gehienak inguruko herrietara joaten dira. Ni ikustera joango naiz, ikuskizun berezia da.

Pedro Arruti



“Lehen joaten nintzen; azken urteetan, ez”

Niri pertsonalki beti gustatu izan zaizkit idi-demak. Plazara askotan joan naiz lagunekin.

Sekulako giroa sortzen da probak irauten duen bitartean. Gainera egun guztian zehar bisitari ugari etortzen da herrira; plaza eta inguruko tabernak betetzen dira.

Ni dagoeneko ez naiz joaten. Egia da sarreraren prezioa ere zertxobait garestitu dela azken urteetan eta, nire ustez, horrek kalte egiten dio proba honen etorkizunari, gazteak ez dira eta joaten. Hemendik urte batzuetara idi-demen tradizioa galduko da.

Aritz Manuel



“Ez, ziur lan dezente izango dugula jatetxean”

Tzatez oriotarra naiz, eta sekula ez dut aukerarik izan idi-probak ikusteko. Orain dela lau hilabete Kanua taberna hartu genuen nik eta nire senarrak.

Bezeroak dagoeneko ari zaizkigu esaten sekulako giroa sortzen dela eta leku askotatik etorriko dela jendea. Beraz, gogotsu gaude eta zain, ea zer nolako erantzuna duen aurtengo edizioak.

Guk ezingo dugu idi-demak ikustera joan, barra atzean egotea tokatuko zaigu. Baina guretzat onuragarria da, urteko ekitaldi garrantzitsu hauek baliatu behar ditugu lana ateratzeko.

Ainhoa Manterola

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
Hilerrri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Ka Ke Ki Ko Ku



Garbiñe Manterola

Azaroaren 23tik abenduaren 3arte Gazteleraldia balitz, ni 'orejalista' izango nintzateke zihurrenik, 'bocavivarako' mailarik ez dut eta.

A skotan, gehiegitan jendeari euskara hizkuntza zaila dela entzun diot. Bai euskara ikasteko ariketarik egin ez duenari, bai euskaldun berriari, baita euskaldun zaharrari ere. Hara bada, hemen deskubrimendua, niretzat ez zen zaila izan euskara ikastea. Are gehiago, ez dut ezagutzen gure hizkuntza etxean jaso eta txukun eta artez hura hitz egiteko kapaza ez den umerik.

Gaztelania bai zaila, ordea. Konplikatueta konplikatuena.

9 urterekin hasi nintzen ikastolan gaztelania ikasten. Aurrez xurgatuko nuen telebistan-edo hitz bat edo beste, baina hori izango zen nire kontaktu bakarrenetarikoa. Izan ere, familiako elementu exotiko bakarra arraro hitz egiten zuen izeba nafarra zen, euskaldun berria bera. Andereño Belenek Ka-ke-ki-ko-ku erdal-dunek nola idazten zuten azaldu zigunean behatza begi bazterrera eraman eta mugitzen hasi nintzen. Ordurako ikasia nion Obelixa, *erotuta daude espainol hauek*. Pentsa *tildeen mobida* kontatu zigutenean.

Pasa dira urte batzuk. Eta onar dezadan, urrats batzuk aurrerago banaiz gaur. Halere, oraindik badut nahikoa arazo genero kontuetan. -as, -os eta @. Faborez, neutroa

den errazarekin.

Azaroaren 23tik abenduaren 3arte Gazteleraldia balitz, ni *orejalista* izango nintzateke ziurrenik, *bocavivarako* mailarik ez dut eta. Batez ere astelehen goizetan, asteburuko barnetegi efektuaren ondoren izaten dudana herdoilarekin mingainean.

Baina Euskaraldia da antolatu dutena. Nahikoa ahobizi banaiz ere, hamaika egun horietan txapa bat eramango dut paparrean hori esanaz. Eta eramango dut, behingoagatik artaldearen barruan ibili nahi dudalako. Talde ariketa bat izango baita. Gure-gurea.

Berezia izango delakoan naiz. Ea nork harritzen gaituen haren paparraldea begiratzen. Makina bat belarriprest eta ahobizi ezagutzeko parada emango digu honek. Eta nork jakin, agian euskararen erabilera hobetzeko baino lagunak egiteko eta bestelakoak lortzeko aukera ere etorriko zaigu.

Azken oharra, aurreko ostiraleko bakarriketan aditua. Gogoratu ahobizi izateak ez digula hitz egiteko eskubide guztierikoa ematen. Ez dadila bihurtu txapa eramatea txapa izatearen sinonimo.

Hortxe erronka, gure hitzak neur ditzagun, bere zentzurik zabalenean.



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80 - Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

emakume arropa - neurri bereziak
 kinkiladenda - barruko arropa

argine

55eko dekoetua familia egarier txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
 943 134 889  argine/jantziak

arkaitz taberna
 ... urio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea

Abeslari kalea 6 - 943 831 657

edertegia

ANTILLA
juleta



Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

ARISTERRAZU
 jatetxea



Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
 - segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

BODEGAS Gailur



9100 BANCOS & EBREO
 Tel./Fax 943 00 91 56
 www.bodegasgailur.com
 Anabarr Etxeak

ZUDUGARAI



Galeriako Tietolina

Tel. 943 83 03 80
 Fax 943 83 59 52
 tudolozudugarai@tukalnet.net
 www.tudolozudugarai.com

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
 Herriko espezialista

Izozki naturalak - Opilak

ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito
 943 831 774
 600 856 728
 anderexpoelektrizitatea@gmail.com

GARMENDIA
 HIRIZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK
 Ibañe Ondo, 1
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 informacion@garmendiagestion.com

HAIZE BERRI
 taberna-jaletekoa-kafetegia
 Plater konbinatuak, bokataiak, harbugeak, raziak, eguneko menua...
ostiraletan Pintxo potea!
 eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
 Orioko Kaledegian, Eribera 1

ITZALA
kartetan jokatzeko arropa
 tel. 943 83 12 59

ITZIAR
kirolak
 Tel. 943 83 31 03

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.
 Lorezaintza Mendiko lanak Indusketak Itxiturak
 Tel. 660 332 756 - 679 428 851
 txukunlorazantza@hotmail.com

Katu Horia
 OIBOLAGITZA KUTXAKO
ESTROPALARI, 10
20510 ORZO
 tel. 943 11 66 99
 LARRIAMIAR
008 80 11 20
 www.katuhoria.com

K-U-K-U-A-B-B-I
 ELEKTRIZITATEA
 Tel. 943 100 181
 Mobilak 640 281 308
 Zigoedia, 52 - Beha C
 20000 Zarautz
 kukuuarri@kukuuarri.com

KAIJOA
 Arropa Oinetakoak Osagarriak
 Arantzako kalea, 1
 T 943 041 985
 ORO (Guzulak)
 Zigorria kalea, 10
 (5. Planzioa) kuzko kaleko aldean
 T 943 021 034
 ZARAUZ (Guzulak)
 Erribera kalea, 10
 T 943 943 000
 ZUMARRA (Guzulak)
 Foru ibilbidea, 1
 T 943 002 070
 Apezkoa (Guzulak)
 www.kaioa.es

LEUNDA OKINGEDIA
ORDUTEGIA
 ESTELEN DENTZALARI BATERA 16:00 ETX. JAI EGUNETAN
7:00 - 20:30 **7:00 - 13:30**
 Telefono 943 85 66 67

Ilar apaindegia
MARIJO
 Neska eta mutilentzat
 Eusko Gudari, 8 - behea
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

Desatascos LASTER
688 886 536
 desatascos@desatascoslaster.com
 www.desatascoslaster.com
 24 ordu
 Hodi-libraketa
 Garbiketarak presio handiko urarekin
 Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
 Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
 Uholde urak aztertzea
 Eskutuko kuxatzen detekzioa
 Sagor erreka 21-A • 20590 Soroluze
 Abaramendi beko 3 • 20810 Oriu
 Tel: 943 751 431

Lizaso dekorazioa
Tf: 943 83 07 84
Faxa: 943 24 87 15
Eusko Gudari, 48

Gabon
 TABERNA
 ✓ Pintxoak
 ✓ Plater konbinatuak
 ✓ Ogitartekoak
 943 83 06 09

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GORROAK
 Arriaga 9, 20810 Oriu
 Tel. 943 13 13 17

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza
 eusko gudariak 35 :: ORIO
 [sarrera Arrantzale kaleatik]
 943 53 64 94 :: 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com



Arantzazutik Arantzazura



Aloña Iribar

Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra egin da Arantzazun, urrian, erakundearen ehun urteurrena eta Euskara Batuaren 50 urteak ospatzeko

Han izan zaio artifiziala dela, ez dela kalekoa, ez dela bizia, ez dela jatorra. Esan izan zaio kasik kimikoa dela, probetetan sortua. (...) Baina denek, baita ezkorrenak ere, nolakotasun bat bera aitortu diote gaur, egia biribil bat, mende erdi pasatsuan urratu duen bidea urratu eta gero: euskara batua, ezer bada, beharrezkoa da (Garbiñe Ubeda).

Euskaltzaindiak ehun urte bete ditu aurten, eta, mendeurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatzen ari da euskara ehuntzen lelopean. Urriaren 4tik 6ra, Euskaltzaindiaren XVII. Biltzarra egin zen Oñatiko Arantzazun. Biltzar horretan, 1968an egin zen Arantzazuko Biltzarra ekarri da gogora; izan ere, urrezko ezteiak ospatu ditu aurten Euskara Batuak. Aurretik hainbat ekarpen egin baziren ere, 1968ko biltzarra izan zen Euskara Batuaren mugarri nagusietako bat. Arantzazun jaiotako arrautzatxoa (horrela irudikatu zuen Bernardo Atxagak euskara bere hitzaldi bikainean) lehoi bihurtuta itzuli dela esango nuke Arantzazura.

Eztabaida ugariren artean sortu zen Euskara Batua: txikitandik jasotakoa baztertu eta besteena hartu beharra zioten batzuek; euskeranto modukoa sortuko zenaren kezka zuten beste batzuek; baina, bazegoen batasunaren beharra azpimarratzen zuen taldetxo bat ere. Haiek ziotenez, euskararen enborretiko adarrak dira euskalkiak, eta, adarrak sano izango baditu, enbor sendoa eta osasuntsua behar du. Euskara Batuaren sendotasunak hobeto gordeko ditu euskalkiak ere. Ezin uka arrazoirik ez zitzaizela falta. Helburua argia zen, han-hemengo euskaldunok elkarrekin hizketan hasten garenean ez dezagun berehala jo, maizegi gertatu ohi denez, erdara batura (Koldo Mitxelena).

Ordutik euskara batuak egin duen bidea azaldu, egungoaz gogoeta egin, eta eginkizun dagoena zehaztu dira aurtengo biltzarrean. 80 hizlari (tartean 3 lankide), webgune berriua, 2 ekitaldi, adierazpen bat, hizkera arruntak, hizkera berezituak, tokian tokiko hizkerak, Euskara Batuaren Eskuliburua, 300 bat entzule... Ez dira nolanhiko datuak. Bazegoen bai zer entzun, zer ikasi, zertaz gogoeta egin lasaitasun paregabea islatzen zuen ingurune hartan. Bidea duela 50 urte hasi zuen; jarrai dezagun, bada, beharrezkoa izan den Euskara (Batua) zaintzen, ikertzen, lantzen, ehuntzen.



Miriam Garcia

Bost urtetako ikasgaia

Hogeita bosgarren urteurrena gertu zela hasi zen nire ibilbidea KARKARA-n, 2014an. Ez da gauza makala, hogeita bost urte eta gero, hortxe jarraitzea pentsatu nuen orduan. Bost urte egitera doaz hasiera hartatik. Ez dira hogeita hamar, baina badira gauza asko ikasteko nahikoa.

Herri kazetariaren lana ez dela bereziki esker onekoa idatzi dut noizbait. Denborak ematen duen distantziaz, ordea, desberdin ikusten dira gauzak. Asko dut Karkarari eskertzeko.

Eguneroko jardun izan dudana proiektua herritarrentzat erreferentzia izateak ematen duen indarra, adibidez. Herriari zerbait adierazi nahi eta zuzenean gugana jotzeak, kalera irten eta idatzi duzunaren feedback-a jasotzeak -eskatu gabe gehienetan, baina tira, berdin dio horrek-, gutxien espero edo ezagutzen duzunaren esker ona jasotzeak... egindako lanari balioa ematen dio.

Barru-barrutik ezagutu eta gero, balioan jarri nahi dut nik ere hogeita hamar urte hauetan Karkarari bere zati bat eman diogun guztien lana: sortzaile, langile, boluntario, kolaboratzaile, laguntzaile... Proiektu baten pieza desberdinak dira guztiak, bakkarraren faltan ezinezkoa litzateke KARKARA egitea.



kARKARAK bi otar zozketatzen ditu bere laguntzaileen artean

KUTXA BELTZA [50€]

OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA · OZPIN EKOLOGIKOA
MAHATS-ZUKU EKOLOGIKOA · ORBURU BIHOTZAK
PIPER TXORIZERO MAMIA · POTXAK · ARDO BELTZ
EKOLOGIKOA · ZAINZURI ZURIAK · ARBENDOLAK
BORRAJA EKOLOGIKOA · PIKILLO PIPER OSOAK
MELOKOTOIA ALMIBARRETAN · TOMATE FRIJITUA



PIKILLO SALTSA · PASTA EKOLOGIKOA · TEILAK
PIKILLO PIPER OSOAK · ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
ZAINZURI ZURIAK · ORBURU BIHOTZAK · ARROZA
ZAINZURI-KREMA · PIPERRADA · OZPIN EKOLOGIKOA
ARDO ETA KANELA PASTAK · TXOKOLATEZKO COOKIEAK

KUTXA ZURIA [50€]

ERRI GORA

GARAIZ ZAUDE zozketan parte hartzeko,
egin zaitez **kARKARAKo LAGUNTZAILE**

Tel: 943 831 527 · 688 857 305



EGIN
KARKARA
LAGUNTZAILE!

EGIN ZAZU LAGUNTZAILE
EDO
OPARITU
KARKARA



DATU PERTSONALAK...

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN AGIRIA

HELBIDEA

EPOSTA

KONTU ZENBAKIA

ORDAINKETA KOPURUA

GUTXIENAKO 36€

Moztu orrialde hau eta sartu kultur etxeke harreraren dagoen kaxan; edo bidali **KARKARA**ko erredakziora (Eusko Gudari, 26 · 20810 Orio)



“Etorkizun zaila dute Orioko ostalaritza sektoreko negozioek”

Iñaki Makazaga

Ostalaria

Hamairu urteren ostean, Iñaki Makazagak laga egin dio Galerna jatetxea gobernatzeari. Umetatik sukaldari izateko ametsa zuen herritarren iritziz, egungo baldintzetan oso zaila da hondartzako txiringito bat negozio errentagarri egitea.

IÑIGO GAITON

Hondartzako jatetxe bateko barra neurgailu ona izan daiteke, herriko turismoaren eta bisitarien joerei erreparatzeko. Horretarako denbora asko izan du Iñaki Makazagak azken urteetan, eta aho bizarrik gabe eman digu Orioko turismoaren eta ostalaritzaren egoeraz duen iritzia.

Gazterik zabaldu zenuen lehen negozioa.

Nire umetako ametsa sukaldaria izatea zen. Hamasei urterekin, sukaldaritza ikasketak egin nituen Aialan, eta hortik gutxira zabaldu nuen Aterpe.

Ordurako ostalaritzan nenbilen lanean, eta ordu asko eskatzen zituen sektorea zela ikusi nuen. Nahiago izan nuen ordu horiek nire negozio batean pasatzearen aldeko apustua egin, beste batzuentzat lanean jardun baino.

Martxa ona zuen Aterpek. Nolatan laga zenuen Galerna irekitzeko?

Jatetxe bat izateko ilusioa nuen, eta hasiera batean, Galernak horretarako aukera hobea zirudien. Guk hartu aurretik, hondartzako negozio horrek lau urte eman zituen itxita. Hori dela eta, Udalak alokairuaren prezioa jaitsiko zuela adierazi zuen, eta kopurua altua zen arren, aurrera egin genuen.

Orain ordaintzen dena baino altuagoa?

Bai, ia bikoitza. Gu bakarrik aurkeztu ginen lehiaketara. Hasierako bizphairu urteak gogorrak izan ziren. Udalak alokairurako zifra ateratzerako kalkuluak edo errentagarritasun planen bat eginga izango zuela pentsatu genuen, baina ez zen horrela izan. Gutxi-gorabehera ateratako

zifra izan zen.

Hala ere, hamairu urte egin dituzue han.

Bai, baina ia urtero izan ditugu ezustekoak eta korapiloak. Laugarren urtean, alokairuaren prezioari moldaketaren bat egiteko eskatu genion Udalari. Hura ez zen bideragarria.

Urte hartan udan eguraldi oso txarra egin zuen. Lanean ordu piloa pasa arren, diruak ez zuen alokairua ordaintzeko ere ematen. Udalari alokairuaren zati bat hurrengo urtean ordaintzeko aukera ematea eskatu genion, eta ezezkoa jaso genuen: *zuek jakingo duzue zer egin duzuen tabernarekin, beste bi txiringitoetako jabeek ordaindu dute aurtengoa*, izan zen erantzuna. Gezurra, alegia. Uda pasa zenean, beste bi negozioak itxi zituzten, urteko alokairuak ordaindu gabe.

Zein da urte hauetaz guztietaz egiten duzun balantzea?

Lanean ezagutu dudan jendeagatik bakarrik, merezi izan dute han pasatako ordu guztiek. Arlo ekonomikoan, aterra dugun etekina ez da esperotakoa izan. Udalak gurekin gehiago irabazi du, guk haiekin baino.

Udan eguraldi txarra eginez gero, zaila al da hondartzako negozioak errentagarri egitea?

Oso zaila. Orion, behintzat, ia ezinezkoa. Negozioa hiru hilabetez soilik zabalduz gero, hor nonbait. Baina gure kasuan, zortzi hilabetez nahi genuen lan egin, eta udaberri eta udazkenean aste defizitario gehiegi daude.

Aurten, behintzat, uda ederra izan da.

Bi hilabete oso onak izan dira, bai, baina gainontzekoak?



“Udalak gurekin diru gehiago irabazi du urteotan, guk haiekin baino.”

Ez genuen udaberririk izan!

Zer da Galernak eman dizun onena?

Lankideak. Momentu oso onak bizi izan ditugu.

Eta txarrena?

Udaleko legealdi berri bakoitzaren aurretik izaten genuen ziurgabetasuna.

Zer esango zenioke zuek lagatako jatetxea hartzea pentsatzen ari den norbait?

Ez hartzeko aholkatuko nioke. Begira, hau esatera auzartuko naiz: urte batzuk barru, Orioko Udalak kobratu beharrean ordaindu egin beharko du, jendeak negozio horiek hartzeko interesa izan dezan.

Zer falta zaie hondartzako negozioei erakargarri izan daitezen?

Ez da hondartzako kontua bakarrik, Oriok du arazoa turismoarekin. Herriko tabernetan ez dago martxarik, bizigarri gutxi ikusten dut. Turismo teknikaria behar dugu, beste ezeren aurretik. Urteak daramatzagu hutsune horrekin.

Oriok bereizgarri bat behar du. Postal bat. Bisitarien zat erakargarri egingo duen irudi edo marka bat.

Hala ere, hotela zabaldu zenuten duela gutxi. Panorama ez da hain txarra izango.

Iaz okupazio oso altua izan genuen, %85etik gora urte osoan. Hotelen jasotzen dugun jende gehiena langilea da, batetik bestera bidaiatzen dabilena.





“Orioko tumuluak Egiptoko piramideen garaikideak dira”

Luis del Barrio

Gipuzkoako ondare arkeologikoaren dibulgatzailea

Bentako merendoaren parean, Lusarbe auzoan, tumulu kontzentrazio handia aurkitzen da: Tontortxikiko Tumuluak dira. 5.000 bat urte dituzten hilobi-multzo hauek 1982an aurkitu ziren. Azken urteetan, Orioko Udalak eremu horren garbiketa lanetan lagundu du. Luis del Barrio ondare dibulgatzailearen esanetan, "izugarritzko altxorra du Oriok. Herriko aztarnarik zaharrenak dira Tontortxikiko elementu hauek; edonork bisita ditzake, paraje ezin hobe honetan".



“Brontze Aroan eraiki ziren tumulu hauek. Ehiza egiteko transhumantzian ibiltzen zirenek eremu honetan lurperatzen zituzten beren senideen gorpuak”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AINARA LASA

Tontortxiki izeneko parajea gaude, Igeldoko Estazio Megalitikoan, Orioko udalerriri dagokion zoruari. Luserbako merenderoaren parean, atentzioa ematen du panel erraldoi batean ageri diren prehistoriako gizon-emakumeen marrazkiak. Luis del Barrio Gipuzkoako ondare arkeologikoa zabaltzeaz arduratzen da. Bere esanetan, orain dela 5000 urte transhumantzia egin eta ehizan ibiltzen ziren gizon-emakumeek beren komunitateko hildakoak harriz jositako hilobietan lurperatzen zituzten. *Mendi honetan 1982an Prehistoriako lau hilobi aurkitu ziren; tumulu izena hartzen dute. Zer dira tumuluak? Hobiak dira, eta bertan giza hezurdurak –gaur egungo panteoien antzerakoak–, edo gorpuen errautsak –errausketa– aurki daitezke. Ez dakigu zehazki tumulu hauetan errautsak edo gorpuak dauden gordeta. Indusketa arkeologiko bat egin beharko litzateke horretarako. Baina, ezbairik gabe, balio arkeologiko izugarria duen eremua da honakoa.*

Zenbat urte izan ditzakete tumulu hauek?

Hilobi hauek 3.000 eta 5.000 urte bitartean eduki ditzakete. Brontze Aroan eraiki ziren. Argi eta garbi ikusten da garai hartan lur eremu honetan giza talde bat zegoela. Ehiza egiteko transhumantzian jarduten zuten. Oraindik ez zuten nekazaritza ezagutzen, ezta abeltzaintza ere. Deigarria da Tontortxikiko eremu hau aukeratu izana beraien hilobiak ezartzeko.

Halaber, bitxia da lau hobi horiek bata bestearen ondoan egotea, distantzia gutxira. Normalena da halako ehortzokiak mendian bakarturik edo isolatuta egotea.

Esan daiteke Orioko aztarna zaharrenak direla Tontortxiko elementuak?

Zalantzarik gabe. Oso gertu, Aian, Altxerriko kobak daude: horiek 18.000 eta 20.000 urte bitarte dituzte. Kasu honetan, Igeldoko mendiko eremu honetan, Orioko Lusarbe auzoan zehazki, bizilagunak bazeudela frogatuta geratu da, tumulu hauei esker. Hauek dira orain arte Orioko udalerrian ezagutzen diren aztarna zaharrenak.

1982an eman zen aurkikuntza. Zein urrats eman dira gaur egunera arte prehistoriako hilobi hauek balioan jartzeko?

Gure helburu nagusia da Orioko ondare arkeologikoa dibulгатzea eta gizarteratzea. Urte hauetan guztietan, Orioko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneako sailaren laguntzari esker –lur horiek foru erakundearen jabetzakoak dira– urtean bi aldiz hango sastrakak kentzen ditugu tumuluak eta horiek ikusteko bidea garbi mantendu daitezen, edonorentzat bisitatzeko modukoa izan daitekeen baliabide bat izateko.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Kultur sailetik emandako diru-laguntza baten bitartez, azken bi urte hauetan indartu egin ditugu garbiketa lanak eta, era berean, ibilbide zabal bat egokitu dugu.

Edonork egin al dezake Lusarbeko edo Bentako merenderoaren parean aurkitzen diren tumuluen ibilbide hori?

Edonork. Bideak ez du inolako zailtasunik. Familiak, adi-



nekoak, talde handiak, edota norbanakoak joan daitezke hara.

Nabarmentzekoak dira proiektu hau aurrera eramateko administrazio publikoak ezarritako xedek: inguruneak daukan potentzial turistikoa handitzea; bideak eskaintzen dituen ikuspegi ederrak balioan jartzea –Larrun, Aiako Harriak, Adarra, Ernio eta Izarraitz mendiak ikus daitezke Tontortxikiko tumuluetatik– eta, noski, eremuak gordetzen duen kultur eta historia ondare aberatsa indarrean jartzea, horrek eskatzen dituen kontserbazio eta dibulgazio lanak aintzat hartuz. Ibilbidea erraza eta eroso da. Esate baterako, Lusarbeko merenderoan hamaiketako egin, eta ondoren, edo lehenago, parean dagoen sarbideetik, tumuluak bisitatu daitezke. Eguneko plan bikaina.

Ateak eta panelak ere jarri dira bertan.

Bai. Bi sarbide daude merenderoaren parean. Bietan panelak ipini ditugu aurten; bertan eremuak duen balio arkeologikoa agerian ipintzen da, tumuluen historia eta definizioa, kokapen mapa bat, baita jarraitu beharreko argibideak ere. Azpimarratu nahi dut panelak eta ate berriak jartzea posible izan dela Eusko Jaurlaritzako

Kultura sailak emandako laguntza bati esker.

Tumuluak 1982an aurkitu ziren, eta orain arte ez da mendi ibilbide edota baliabide arkeologiko zein turistiko modura egokitu. Zergatik?

Horrelako zenbait gune daude Gipuzkoan zehar; baina asko eta asko sastraka tartean daude. Gure lana da indusketak egitea eta ondoren, erakunde publikoei aurkitutakoaren txostena erraztea.

Egia esan, txalotzekoa da Orioko Udalak erakutsi duen konpromisoa. Guk aurkeztutako ikerketen emaitzen berri eman genionetik, 2007 inguruan, urtero gune hori garbitzeko eta balioan jartzeko laguntza eman du. Udal gutxi daude halako inplikazioa erakusten dutenak.

Done Jakue Bidea hor gertu pasatzen da. Azken urteetan erromes fluxua asko hazi da. Horrek eragin al du Tontortxikiko tumuluak izandako bisitari kopuruan?

Bai. Esan dezakegu erromes asko bide ofizialetik zertxobait desbideratzen direla Orioko tumulu hauek bisitatzeko, eta harritura geratzen dira aurkitzen duten paisaia-multzoa eta altxor arkeologikoarekin.

Orain, 2018 hasieran panelak eta bestelako seinalezta-penak ipini direnetik, egunero 10 bat pertsona etortzen



dira, Oriotik, Usurbildik, Donostiatik, Aiatik... baita Done Jakue Bidea egiten duten hainbat eta hainbat erro-
mes ere, edota Donostiatik Igeldoko errepidea hartu eta
lurraldea ezagutzera datozen turistak.

Zergatik ez da oraindik promoziorik egin?

Kontserbazio lanetan aritu gara; orain, behin ibilbidea
behar bezala egokituta, ziur Orioko Udalak dibulgazio
eta promozio lanei ekingo diela.

Etxeko ondarea lehenesten dute herritarrek?

Ez. Elementu hauek ez dira sekula balioan jarri. Oroko-
rrean, ez dugu ezagutzen herrian duguna.
Machu Picchura joateko dirutza gastatzen dugu eta han
dagoenaz liluratuta geratzen gara.
Hondakin horiei argazkiak atera eta etxera itzultzean,
ingurukoei erakusten dizkiegu, harro-harro. Ez gara
ohartzen etxe ondoan, ozeanoa zeharkatu gabe, antze-
rako elementu arkeologikoak ditugula; kasu batzuetan,
atzerriko monumentu edo hondakin ospetsu horiek
baino garrantzitsuagoak. Jendea harrিতuta geratzen da
jakitean, hilobi hauek egiten ari zirenean, Egipton pira-
mideak eraikitzen ari zirela. Garaikideak dira.

IGELDOKO ESTAZIO MEGALITIKOA

Igeldoko Estazio Megalitikoa 10 monumentuk
osatzen dute. Beraien desberdintasunak berebiziko
interesa ematen die, trikuharriz, tumuluz eta bi ha-
respirez osatuta dagoelarik, Piriniar guneko geografikoei
dagokien bezala. Guzti hori Kontxako Badiatik Oriora
doan kostaldeko katean dago. Tertiario aroko hareha-
rriz osatutako lurra da.

Estazio honetan ondorengo monumentu megalitikoak
daude:

- Aitzazate I, Arrobizar eta Iturrietako trikuharriak.
- Tontortxiki I, II, III eta IV ko tumuluak.
- Aitzazate eta Mendizorrotz I eko harrespilak.

Monumentu horiek Brontzea, Eneolitoa, Burdin Aroa
eta Neolitoa aroak hartzen dituzte.

Estazio Megalitiko honetako elementu guztiak Monu-
mentu Maltzo daude izendatuta .

Donostia, Usurbil eta Orioko udalerrriak hartzen ditu
Igeldoko Estazio Megalitikoak. Zehazki, Tontortxiki I,
II, III eta IV tumuluak dira Oriori dagozkionak. Prehis-
toriko lau hobi-maltzo hauek bata bestearen ondoan
daude, 500 bat metroko ibilbidean.





Ederra joan da Oteiza astea

2018ko urriaren 21ean Jorge Oteiza artistaren jaiotzaren 110. urteurrena izan da. Orion jaiotako eskultore handia omentzeko, KARKARAK eta Orioko Udalak elkarlanean antolatutako hainbat ekimen egin dira, Oteiza astearen baitan. Antolatzaileen hitzetan, astea bete-betea izan da; herritar ugarik parte hartu du antolatu diren jardueretan, eta jende askorentzat, astea zubi aproposa izan da Oteizak euskal gizarteari egindako ekarpenak, haren bitzitza eta obrak gertuagotik ezagutzeko.



Jenerazioz jenerazio, eguneroko bizitza idien artean

Alejandro Olidenek 60ko hamarkada hasieran lehen idia ekarri zuenetik, Ortzakako familiako ondorengoek segida eman diote tradizioari. Gaur egun, **olidendarren idiak ezagunak dira Euskal Herriko probalekue-tan**, eta haien hitzetan "etorkizunean ere bai, inongo okerrik ez bada".

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IÑIGO GAITON

Batista Olidenek hamairu Kontxako bandera irabazi zituen 1934 eta 1955 urteen artean. Orduan, estropalariak teknika kuriosoak erabiltzen zituzten entrenamendu saioak egiteko; Batistaren ilobak, Iñakik, harridura handiarekin gogoratzen du horietako bat: *Osabak kiloak hartzeko joera zuen, eta estropadak baino egun batzuk lehenago, sauna moduko muntaketa bat egiten zuen etxe-ko sukaldean: Michelin fabrikako gomazko zinta batzuk lotzen zituen tripa eta gerri aldean, eta labea pizten zuen. Aulki batean eseri, makurtu, eta burua eskuohialarekin tapatuta, labeak botatzen zuen berotan ematen zituen minutu batzuk, nahikoa izerditu bitartean.*

Hamarkadaz hamarkada estropalarien entrenatzeko modua, eta orokorrean, arrauna bera, asko aldatu dira; Oliden aita-semeen iritziz, garai zaharretatik gaurdaino idi-demetan eman den eboluzioa ere handia izan da; beren familiako hiru jenerazio izan dira horren lekuko.

Alejandro

Alejandro Oliden Ortzakain jaio zen, eta han bizi izan zen herrira etorri aurretik. Garai hartan, auzoan idiekien aritzeko afizio zuten, eta hango giroak sortu zion bere animaliak izateko gogoia. *Gure aita estropalaria ere izan zen, bost Kontxa irabazi zituen. Haren hitzetan, beren gaz-*

te garaian Orion ez zen arrauna beste konturik, eta horrek bultzatzen zuen traineruan sartzerara. Hark, ordea, ez zuen bere burua arraunlari petotzat, dio Iñakik.

Alejandrok eta Nati Etxezarreta emazteak harategia ireki zuten Orion 1959an. Burgoseko hiltegi batera jenero bila egindako bidaietako batean, gustuko idi bat ikusi zuen. Handik egun gutxira, herrian zen animalia. Iñaki eta etxeakoentzat, egun oso berezia izan zen hura: *Dema jokoan hasitakoan, aitak arraun kontuak betirako laga zituen. Idia lehenago ekarri izan balu, arrauna probatu ere ez zuela egingo esaten zigun.*

Idiak igeri Motondoraino

Ortzaika auzoan, beste leku askotan bezala, ohikoa zen idiak baserriko lanetarako erabiltzea. Olidendarrek, auzoko lursailez gain Motondo aldeko baratzak ere golde-tzen zituzten, eta horretarako, idiek erria gurutzatzen zuten; animalia bat alaren gainean pasatzen zen ibaiertz batetik bestera. Bigarrenak, berriz, igerian gurutzatzen zuten ibaia alderik alde, embarkazio txikiaren atzetik.

Iñakik hamabi urte zituen aitak demarako lehen idia ekarri zuenean, eta bera ere berehala zaletu zen. *Guretzat, umetan, bizigarri ederra izan zen animalia hura, amari grazia handiegirik egin ez arren, gogoratu du. Apustu munduari usain txarra hartzen zion Natik, eta*





senarra giro horretan sartu zitekeenaren errezeloak, ezin negona eragiten zion. Hala ere, ez zen halakorik gertatu. *Nire aita, semea eta hirurok lehiaketa, apustu eta erakustaldietan bete betean sartuta ibili gara urte luzez, baina sekula ez dugu dirua jokatzeko biziorik izan.*

Psikologiaren garrantzia idi-deman

Iñakiren semeak, Iñaki hau ere, hamalau urterekin jokatu zuen lehen dema erakustaldia, oraindik txapelketa ofizialetan aritzeko gutxiengo adinik ez zuenean. Gaur 42 urte ditu, eta gutxi dira herri kirol honi berak adina dedikazio eskaini dioten lagunak.

Kanpotik begiratuta, idi-deman animaliaaren indarrak eta erresistentziak dirudite landu beharreko faktorerik garrantzitsuenak. Iñakiren iritziz, ordea, ia arreta handiagoarekin zaindu behar da idiaren arlo psikologikoa: *Ordu asko ematen ditut beren jokaerak ulertzen saiatzen. Animalia bakoitza enigma bat da, eta idien buruan ahalik eta sakonen sartzeta da niretzat erronkarik handiena. Horrek pizten dit lanean jarraitzeko motibazioa, azaldu digu.*

Umilak, urduriak, harroxkoak, lasaiak... Idi bakoitzak bere nortasuna du, eta probalekuan lan ona egiteko, izaera hori ondo ezagutu behar da: *Itzain lanetan ari denak asmatu egin behar du idiaren onena ateratzen; horretarako, nahitaezkoa da animaliaaren motibazioa edo animoa behar bezala egotea. Noski, idiak ere ulertu egin behar du bera gidatzen ari den pertsonak zer eskatzen dion. Dema,*

“Motondo inguruko lurrak gogotzeko, idi batek alan pasatzen zuen erria, eta besteak igerian.”

“Idi bakoitzaren burua enigma bat da, eta bakoitzaren psikologia ulertzea da niretzat motibazio handiena.” **I.Oliden**

“Hondartzara bideko txabolan, olidendarrek hamar idiko haizienda dute”



azken finean, gizakiaren eta animalia-aren arteko elkar ulertzea da. Komunikazio hori ondo gauzatu dadin, idiak dira eskola onena. Iñakik denborarekin ikasi du hori: Animalia-ri begiratzen ikasiz gero, hark erakutsiko dizu hura nola tratatu. Baina horretarako, denbora asko eman behar da haiekin.

Hondartzara bideko txabolan, olidendarrek hamar idiko hazienda dute. Animalia bakoitzari aginduak emateko, Iñakik hitz solteak erabiltzen ditu: etorri, aida, pasa,... Normalean, berehala erreazionatzen dute. *Hitzak baino garrantzia gehiago du tonuak. Askok zaindu behar da aho-tsaren tinbrea hitz egiterakoan.* Aginduak jaso eta duten berehalako erreakzioa ikusita, idiak azkarrak direla on-doriozta daiteke. *Hobe tontoagoak balira!*, oihera egin du aitak atetik. Azkarrago beteko lukete esandakoa.

Idiaren begiratu

Arrantzale zaharrak nahi-beste xehetasun aurkituko dizkio, lehen begiratuan, bare-bare ageri den itsaso zatiari. Iñaki semeak begiradaren zorrotasun bera du etzanda, deskantsatzen, ia berdina diruditen bi idiekin.

Animalia-aren altuera, luzera, zabalera, larruazala, buz-tana, hankak, lepoaldea... Idiaren atal fisiko desberdinei erreparatzeaz gain, bada berarentzat garrantzia duen beste ezaugarri bat: begiratu. Horri erreparatuz, Iñakik atera dezake animalia-aren izaeraren aztarnaren bat. *Ezagutzen ez ditudan pertsona eta idia aurrean jarrita, erra-*

zago hartuko diot tankera bigarrenari, bota du ironiaz.

Etxean egindako uztarriak

Azken urteetan uztarriak egiten ikasi du Iñaki semeak. Bere esanetan, horri esker bere idiek errendimendu hobea ematen dute lehiaketetan: *Dema munduan sakontzen joateko beste urrats bat izan da uztarriak egiten ikastea. Lehen, derrigor, uztarri-egileari deitu behar izaten genion. Hori da ohikoena, idien ia jabe gehienek egiten dutena. Ez da erraza enbor zati batetik abiatuz halako pieza bat sortzea, zehaztasun handia eskatzen duen artisauna da.*

Garai batean, idiak lanerako ibiltzen ziren, eta tarteka lehiaketak jokatzen zituzten. Orain, berriz, idiak deman aritzeko bakarrik dituzte jabe gehienek: *Horregatik, uztarri zaharrak zabalagoak ziren, idiak lanean elkarrengandik libreago ibiltzeko. Orain estuagoak dira, deman hobeto aritzeko. Beharbada, materialari dagokionean, hori da eman den aldaketa nabarmenena.*

“Idiek sufritu, arraunlariak Kontxan bezala!”

Azken urtetan, zeresan handia eman du gizartean kirol edo ospakizunetan animaliek jasotzen duten tratua. Gaiak ertz eta erpin zorrotz asko ditu, eta kontuz jarri dugu mahai gainean. Errezelarik gabe, Iñaki gazteak titular batekin erantzun digu: *Nire burua baino hobeto zaintzen ditut idiak!* Animaliek bizimodu ona dutela dio. *Egunero, goizeko zazpietarako etortzen naiz ukuilura, eta*



jana ematen diedan bitartean, adi-adi egoten naiz ea ezutla, hankaren batekin erren, botaka edo ezer arrarorik egiten duten. Edozein txikikeria atzemandakoan, albaitariari deitzen diot berehala.

Ukuiluan animaliei ematen zaien tratua ez du jendeak ikusten, baina probalekuetakoa bai. Han, makilakada eta ziztada handiak jaso izan dituzte idiek. Aitaren hitzetan, *oraingo egoerak ez du lehengoarekin zerikusirik. Lehen, animaliek egurra jasotzen zuten, hori ukazezina da. Ezagutu izan dut apustu bat irabazteagatik animaliei edozer egiteko prest zegoen jendea. Hura ez zen bidezkoa.*

Azken urteetan, inoiz idiren bat probalekuan zerraldo geratu dela eta, polemika handiak izan dira, eta idizalei akusazio gogorrak egin zaizkie: *Tristeena, batzuen jokararen ondorioz denoi jartzen zaigun fama txarra da, kexatu da Iñaki gaztea. Interneten, batez ere, jendeak epai moralak erraz egiten ditu, gaiaren benetako ezagutzarik izan gabe, eta hori mingarria gerta daiteke.*

Ukuiluko eguneroko martxan ez, baina beren idiek probetan sentitzen duten sufrimendu mailaz galdetuta, aita bizi erantzun digu: *Estropalariak Kontxako estropadan bezala! Nekatu egiten dira, noski, baina gureek behintzat ez dute hortik haragoko minik hartzen.*

Bukatu aurretik, olidendarrek herritar orori luzatu diote txabolarra gerturatu eta beren mundutxoa gertuagotik ezagutzeko gonbita.



AIA, ETXEKO PLAZA

Oriotarra izan arren, *Aiako probalekua etxeke plaza da niretzat, dio Iñaki semeak. Leku berezia da berarentzat. Duela urte gutxira arte, ez nuen lortzen han txapelketa ofizialik irabaztea. Ez dakit, ilusio gehien egiten zidan lehiaketa zelako-edo, irrika gehiegi izaten nuen, eta beti suertatzen zitzaidan ezustekoren bat.*

Azaroaren 1, 3 eta 5ean XIX. Kintopeko idi probak jokatuko dira Aian. Saizar sariketarako puntuagarriak izango dira lehia hauek. Iñakik hirugarren egunean parte hartuko du, astelehenean.

Oraindik ere, proba batzuk astegunean izan arren, jendetza juntatzen da herrian. *Bizkaiko idiak ere etortzen dira lehiatzera, eta hango jende asko erakartzen dute. 300-400 ikusle juntatzeko ez da asko behar izaten, gehitu du Iñakik. Itxura guztien arabera, etorkizunean idi-demak izaten segituko dugu: Duela urte batzuk galdetu izan bazenit, agian ezetz erantzungo nizuke, baina orain, gazte jendea ikusten da probalekuetan. Nik, okerrik ez bada, hil artean izango ditut idiak. Txapelketa egunetan ez dut asko gozatzen, baina eguneroko lanean bai. Idiek asko irakatsi didate bizitzaz; pertsona bezala hazten lagundu didate.*

Bazkalostea ederra joan da olidendarrek palotetan duten txabolan. *Maitasuna eta errespetua dira elkarriketatuek idiei erreferentzia egiterakoan gehien erabili dituzten hitzak. Aita-semeek bi balio horietan oinarritzen dute bi adarreko animalia harrigarri hauekin duten harremana.*



EKILORE GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascorra@rrsailagileak.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK IRKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

Izaskun Estankoa

- .Tabakoa
- .Prentsa
- .Eskola materiala
- .Opariak

2018ko urriaren 26a

KOLON TXIKI

Herriko Eparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



KORTABERRI arotz lanak

Imanol Ilarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL/F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
L.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

MENDIZABAL AROZTEGIA

Nerriko arnairak eta eperlanak

943 831 175 Aitzari bideo
645 708 491 Bati-Aloi etxea
mendizarotgi.net 20810 Aia-Orio



niko taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palata Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrrosia
Zefaleak

Manaje terapeutikoa,
bentsoak, akupuntura,
estuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 bakera

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

SU KIA
TABERNA · JATE-TOKIA

On aghi eta gero... hartu KOPA eta TOPAS!

- OILASKO ERREKAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENJA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tf. 943 832 128
ARRANTZALE 16, 1. BARRIOA

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
tekarra, burizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Portu EKRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 46
943 89 44 04
20809 AIA-ORIO

bratko kromoko oliban
puztiko erretak egiten dira



Idi-demak Aian duela hamazazpi urte

Aspaldi ahaztua genuen *Argazki mundiala* atala errekeratzea adostu dugu erredakzioan, eta berriz martxan jartzeko, hautsa kendu diogu hamazazpi urte dituen foto honi.

Aldizkaria banatu eta egun gutxira jokatuko dira Aian XIX. Kintopeko idi probak, eta garai batean bezala, probalekuan kristoren giroa izango da aurten ere.

Garaiak aldatzen doaz abesten du Bob Dylanek, denboraren joanak iraungitzen ez duen abesti ezagunean.

Aian, oraindik ere, mundu berriko ohiturek ez diote urraturik egin herri kirol zahar honi.

Are gehiago, Iñaki Olideneke erreportajearekin adierazi digun bezala, jende gaztea ikusten da idi-demetan, eta bere iritziz, oraindik geratzen zaizkie urte batzuk kintopeko probei.

Argazkian, Iñaki bera ikus daiteke itzain lanetan.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri erre-dakziora edo bidali e-postaz, eta gustu handiz argitaratuko dugu.



Denak horiz jantzita. Zer esan behar dute Arrimadasek eta Riverak?

Eninin nainuna nainunen (eta II)

**Oroimenaren
kutxa**

Irailera Karkarako artikulua asmakizun batekin bukatu nuen: *Ura balego, ardoa edango, eta urik ez dagoelako ura edan behar. Zer egoeratan esaten da hori Orion?*

Esaldia Anjel Alustizak bota zidan, erantsiz Orion bakarrik esaten dela. Asmakizunaren erantzuna ere eman zuten, jakina. Kanean ere baten batek asmatu dit erantzuna: Baporeak itsasotik etorrita, barran sartu aurretik, begiratu egiten zuten ea nahikoa urik bazen barran sartzeko, ur gutxirekin arrisku handia zutelako olatu batek arroketara botatzeko; eta barran urik ez bazen zain geratu behar izaten zuten, erriorearen bokalean, eta herrira iritsi bitartean ezin ardorik edan, urarekin konformatu behar.

Herri guztietan daude xelebrequeriak, kontatzeko, kantatzeko..., dio euskal kantu batek. Eta hala da, gurean ere bai. Hitzekin lotutako xelebrequeriak ekarriko ditugu idatziz honetara.

Nik eninin nainuna nainunen, nai enuna inin, nainunen. Ene! A zer esaldia, n letraz josia! Ez du edozeinek ulertuko. Oriotar batek bai, bere hitz egiteko tankeran esana dagoelako. Egin proba zuk, irakurle: irakurriozu, ozen, altu eta azkar, esaldia herriko bati, esaldiari zentzua eman, eta ehuneko ehun denek ulertuko dute zer esan nahi duen: *Nik ez nian egin nahi nuena nahi nuenean, nahi ez nuena egin nian, nahi ez nuenean.* Jostatzeke ariketa polita.

Egunkari batean haxe irakurri nuen aurtengo apirilean: *Zarauzko Oriokieta eskolan...* Ez da harritzekoa oker hori egitea, eskolaren benetako izena oso antzekoa baita: Oriokieta. Orioko eskolak, berriz, Zaragueta du izena. Hizkiekin jolasa eginez, Oriokoari Zarauzgueta deituko diogu. Horrela: Zarauzkoa Oriokieta eta Oriokoa Zarauzgueta.

Azken urteotan Zaralardi izena dute Aia eta Orioko es-

koletako ikasleen eskola-kiroleko taldeek; izena bi ikastetxeenak batzetik sortuta: Zaraguetaen Zara- eta Lardizabalaren -Lardi.

Ipuin batek, berriz, kontatu zigun Orio eta Aia batzen dituen ibaiaren izena (Oria) bi herrien izenekin jolastuz sortua dela: Orioren lehen bi letrak Or- eta Aiaren azken biak.

Ingeles irudimentsu batek, Orio pixka bat ezagutu zue-nean, beste izen bat asmatu zuen herri arraunzalearen-tzat: San Remo. Aginagari, berriz, Angulinaga esaten zion. Euskaldunontzat karneta 'nortasun agiria' dela jakinda, atzerritarrena asmatu zuen: 'nortasun giria'. Irudimena eta umorea ditu dosi handitan nire lagun ingelesak.

Lehengo batean Antton Olariaga 'Zakilixut'ek galdetu zidan ea nola den posible txapela ere horia janzten duen Benito Lertxundi oriotar horizaleak bere kanturik ezagunena honela bukatzea: *Hori ez, hori ez...*, behin eta berriz errepikatuz, ahotsa urratu arte.

Ez dut pentsatu ere egin nahi zer gertatuko litzatekeen Oriok aurten Kontxan irabazi eta Rivera eta Arrimadas Ciudadanoskoek alirona ikusiko balute, Kike Amonarri-zek. Bi 'Hiritar' ospetsuak ere *hori ez, hori ez* kantari hasiko ote lirateke, ba?.

Adibide gutxi batzuk besterik ez dira aurrekoak, hitzarekin jostatuz gozaten dakiten batzuek asmatuak, hizkuntzaren plazer estetikoaz zerbait badakitenean. Eskolan eta euskaltegian hizkuntza lantzen denean, lagungarri izango da deklinabidea eta aditz-taula ikas-tea; baina hizkuntzarekiko maitasuna eta atxikimendua bestelako bideetatik etorriko da. *Hizkuntza bizigarri bat nahi dut egin herri bizigarri batean* zioen Heinrich Böllek. Hala gogorarazi zigun Anjel Lertxundik Berrian urriaren 7an. Euskara biziberritzeko behar ditugun 'ahobizi' eraginkorrenak horiexek izango ditugu, hizkuntza erakargarri egingo dutenak.

IÑAKI TURAIN

671 ahobizi eta belarriprest c

Oriotar asko ari da izena ematen Euskaraldian

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den Euskaraldirako izen-emateak martxa bizia hartu du Orion. Irailaren 20an ireki zen izena emateko epea eta dagoeneko 671 oriotar apuntatu dira ahobizi nahiz belarriprest gisa.

Bi modu daude Euskaraldian izena emateko:

- On-line egin daiteke, <https://izenematea.euskaraldia.eus> webgunean
- Eta herriko bost toki hauetan ere bai, fitxa bat betez: kiroldegian, kultur etxean, eskolan, ikastolan eta haurreskolan.

Horrez gain, datozen urriko eta azaroko asteburu guztietan Euskaraldiko Orioko lantaldeak mahaiak jarriko ditu kalean, informazioa banatzeko eta izen-ematea bultzatzeko. Mahai horietan aukera izango da, baita ere, Euskaraldia dela-eta egin diren poltsak erosteko.

Elkarteek Euskaraldia bultzatuko dute

Euskaraldiaren Orioko lantaldeak hiru bilerara egin zituen kultur etxean urriaren hasieran herriko talde eta elkarteekin. Era guztietako elkarteak azaldu ziren bilera horietara: kultura eta kirol alorrekoak, gastronomikoak... Bileran lantaldeko kideek bertaratuei azaldu zieten zer den Euskaraldia eta zer egin dezaketen bakoitzaren elkartetik parte hartzea bultzatzeko.

Elkarteek oso harrera ona egin diote ekimenari eta dagoeneko hasita daude beren kideen artean informazioa zabaltzen eta jendea animatzen izena ematera. Elkarte askok, gainera, konpromisoa hartu dute beren Euskaraldiko 'hamalaukoa' osatzeko eta, hartara, herritarrei adierazteko parte hartuko dutela ekimenean. Argazkietan ikusten duzuen bezala, Orioko herriko hamalauko ofizialaz gain, eskolak eta ikastolak sortu duten dagoeneko berea, eta kiroldegia eta Errikotxia elkarteak ere bai. Bestalde, aste honetan bertan egingo dituzte publiko beren hamalaukoak euskaltegiak, Talai Mendi elkarteak eta haurreskolak; eta, ondoren, beste

mordoxka bat etorriko da: Udala, Arkupe, Arraun Elkarte, Txurrunuski, Harribil, surf taldea, elkarte gastronomikoak...

EUSKARALDIA
NIK DAGOENKO EMAN DUT IZENA
 euskaraldia.eus *eta zuki?*

EUSKARALDIA. ORIOKO HAMALAUKOAK

 JOSI Roig Fàbregas -Belarriprest Ez zait gustatzen jendeak ikusitzea ardean, behar izaten nigarika. Harengatik esan nahi dut nire burua belarriprest izateko. ¿Diar da fabar euskeraz por mi? De cap manerat si no lo habrás vosotros ¿dauen lo nara?	 MARIJO Salsamendi Goñi -Ahobizi Oure inguruko jendea askotan aldatu dezakegu ofiziala, eta euskeraz egiten hasi. Nik irakera hori egingo dut azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Egun euskeraz biko ditut eta euskeraz egingo dut uertzen duen guziki.
 IÑIGO Exposito Murillo -Ahobizi Niri erabat euskeraz hitzatu gustatuko litzaidake Orion; nire egunerokoa, etxean, kiroldegian, kirola egitean, eta beste ikusizko bitxiak ere izan eta bertsioan izatea, beren dutsarekin, munduan berena izateko.	 MARIA JESUS Elortza Lekuberrrieta -Ahobizi Euskeraz ondo egiten ez duenari zuzenean galdetzen ez dugu euskeraz hitzatzeko. Euskeraz eginda, berriak, kontatuz eta gogoa gogoa dugu gurekultura eragotzeko. Eta kulturak berriz ditzate abertokiak.
 OIHAN Gazategi Urbiza -Ahobizi Oure auzulok egiten zuten beste egiten dugu guk euskeraz natural. Guretzat irizta da Orion euskeraz egitea; baina denontzat ez da hala gertatzen eta laguntza prest nago ni, ahobizi gisa.	 BAKARTXO Begiristain Puertas -Belarriprest Nik la dera uertzen dut, eta hiz egiteko ere gai naiz, nahiz eta hitzuzten hitzuzten. Berrizki erantz egiten dione, uertuko ez dutenak. Euskeraz hitzuztena aukera ona da oriotarrek jakiteko niretzat hitz egiten dutenak euskeraz.



daude Orion dagoeneko



Azaroaren 9an, entrenamendua

Azaroaren 9an, ostiralarekin, festa-giroko ekitaldi bat antolatu du Euskaraldiko lantaldeak.

Helburua da Euskaraldiaren entsaio orokor moduko bat egitea eta, horretarako, dagoeneko izena eman duten guztiak gonbidatuko dituzte egun horretan kalera atera eta entrenamendua bat egitera, pintxopotea, musika eta solasaldiak uztartuz.

Parte-hartzaileen artean 'Ni ahobizi izango naiz' eta 'Ni belarriprest izango naiz' pegatinak banatuko dira eta Euskaraldiaren ariketa egingo dute guztion artean kalean, ekimenaren berezko esparruan.

Txapen banaketa Euskaraldian erabiliko diren benetako txapen banaketa ere egun horretan hasiko da. Izena ordurako eman dutenek txapa bertan jasotzeko aukera izango dute.

Txapen banaketa modu egokian antolatu ahal izateko, Euskaraldiko lantaldeak herritarrei eskatzen die ez uzteko izen-ematea azken ordurako eta, ahal dela, lehenbailehen egiteko.

 <p>NADETH Agirre Arruti —Ahobizi</p> <p>Kurpegi ari da behar duzu euskararekin, aldez egoteak egitera pasatu behar duzu. Hainbat da hura aldekoa da koka eta, honetarako, erretatu egin behar duzu. Izan ere erretatzen bagea, erretago izango da.</p>	 <p>JAIME Colado Gutierrez —Belarriprest</p> <p>Nik dena ulertzen dut euskaraz, eta nitz egin ere bai, dicerote behin-gorago. Hala ere, ezinez egiten ditute askok futbolarekin eta katean. Belarriprest gisa izan arren, d. it Euskaraldian, jendeak ontzura hartu behar niri euskaraz egiteko.</p>
 <p>LEIRE Fernandez Elgorriaga —Ahobizi</p> <p>Zergatik ez? Ekarako lagunekin lantzen dut zerbaiterainoko den taldearen indarra. Baita ere, ezinezko ematen duinta, askoz emaztego da taldean, laguntza izurkaila. It egun euskaraz? Egin denak eta egingo duzu.</p>	 <p>MIREN Etxebarria Guridi —Ahobizi</p> <p>Askok uste du nahiko dela euskararen alde dardela egiten arikin. Egiten duguna baino askoz gehiago egin dezakegu euskaraz, Orion le jende guztiak ulertzen du eta. Gainera, gure erabakia da.</p>
 <p>RICHARD Diatta —Belarriprest</p> <p>Orion etorri nintzanean, garbi izan nuen, Femen biltzean, euskaraz behar nuen. Pidanaka ez nitz izan eta zuki niri euskaraz egitea oso ondo erortzen zait. Dagoeneko asko ulertzen dut eta hasita nago nitz egiten.</p>	 <p>MIGUEL Miera Garcia —Belarriprest</p> <p>Euskaraz besteko pidea gogoa izan da eta merat izan du eta orain praktikan jarri behar dut. Askok erabakitzen nahi dute onarritik eta, Inork ez lauki euskaraz eginen, nola izan? Euskaraldik leunduko dit herriak.</p>
 <p>ELENA Baylin Zaidua —Belarriprest</p> <p>Euskaraz katean ari nitz, baina zaro da sortas lagunekin niri euskaraz egitea, askoz arazo egiten zaro eta. Euskaraldian, ordea, belarriprest, baze soilen eraman du-dutenez, erretago egingo ditute euskaraz.</p>	 <p>AMAYI Loidi Iraola —Ahobizi</p> <p>Onituzteki-eko lehen nitz erretaz egiten ditute askok eta Fudazio-guru bat erretzen dit herriak. Ahalgaita egiten ari nitz euskaraz hobetzeko eta. Euskaraldian, laguneko dit, euskaraz gisa apezten, luskaz nago.</p>



ZUR EDER
muebles tapicería altzarak

zureder@zureder.com
943 13 49 21
Poligono Ubegun Nº1, Puerta B
20810, Aia-Orío

**AUKERA!
50%
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTXOJETAN**




ORIA
hertz klinika

Orío Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbiztu berria jarri du martxan.
Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizuneari sorkortzeko arazoak.

Amantziak kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45



BODEGON SARASUA
EKRETEGIA

ETXEKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Endaia Enparantza, 1
20810 Orío (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com


ttipi
ttapa

943259695
ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orío

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



ASADOR
XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel: 943 830619 - ORIO



Zaragueta
Herri Eskola Orío

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ur bide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bitzkaia Kalea, 4
20800| Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es



ROSANA
LANEKO ZERBITZUAK
Auzoaren erdigunean
Tel: 943 83 94 43

egin zaitez laguntzaile

Karkara




BODYFIT

"Aitzakiak baino indartsuago izan"

KARELA Erriberak 1, 20810 Orío · 943 894 428 - orio@bpxport.es



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





ZARAGUETA HERRI ESKOLA



“Euskara hizkuntza polita da, baina zaila”

Kanpineko bisitariak

Bertan ostatu hartutako turistikak

Gure gelatik kanpina ikusten da. Astero joan etorri handia egoten da. Batzuk egun gutxi eta beste batzuk aste osoa pasatzen dute. Brigitte, Martina eta Lienard Frantziatik, David, Shirley eta Lynne Ingalaterratik, Badian Alemaniatik, Sandra Herbeheretatik... makina bat kanpotar dabil Orio aldean. Berengana hurbildu gara eta bakoitzaren istorioa zein den jakin nahi izan dugu. Hizkuntza desberdinetan jardun gara eta ahal izan dugun bezala galdera batzuk egin dizkiegu.

Zergatik aukeratu duzue gure herria?

Zenbat egun egoteko asmoa duzue?

-Itsasoa eta hondartza ondoan dituelako. Bost egun egongo gara.
-Familiakoekin egoteko leku aproposa delako. Bi gau igaroko ditugu.
-Lasaia eta txikia delako. Aste bat.

Zer ezagutu duzue Orio inguruan?

-Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Loiolako santutegia ezagutu ditugu eta oraindik aukera asko daude.
-Donostia eta inguruko hondartzak.
-Hondartzak eta mendiak. Egunero egiten dugu menditik txango bat.

Zer da gehien gustatu zaizuena?

-Janaria, mendia eta hondartza.

-Orioko eliza, hondartza eta paisaia berde hau.

-Itsasoa. Esmatu eta itsasoaren soinua entzutea.

Zeintzuk dira Orio eta zure herriaren arteko desberdintasun nabarmenenak?

-Klima... Han dagoeneko negua da.
-Herriko antolaketa. Herrian egiten da bizitza. Gure herrian kanpoaldera joan behar gara erosketak, aisia... egiteko. Orio herrian dena egiteko aukera duzue.

-Hemen famili giro ikaragarria ikusten da. Pertsonen harremanak asko lantzen dituzue. Gure herrian bakoitzak bere bizitza egiten du.

Zein da gustukoena duzun gure janaria?

-Pintxoak.
-Hemengo barazki freskoak. Haragi gehiegi jaten da nire gusturako.
-Pintxoak eta arraia.

Zer iruditzen zaizu gure hizkuntza?

Hitzik ikasi al duzu?

-Oso zaila. Garagardoa.
-Zaila. Ez.
-Polita eta zaila. Guk ere Okzitanoa dugu.



Mikel Zubizarreta

Ibaia, zikin

Pasa den hilabetean, Orio ibaia oso zikin egon dela ikusi dugu. Batetik enpresa batek bere zaborra zuzenean ibaira jaurti zuen. Bestetik, obra batean erabiltako eta sobera gelditutako pintura ere zabortegira eramanean beharrez, ibaira jaurti zuten.

Nahiz eta aspalditik ibaia-
ren egoera asko hobetu den,
oraindik ere tarteka eta ta-
malez, horrelakoak gertatzen
dira. Gainera hondartza ere
kutsatuta egon da uda hone-
tan.

Zabor asko zegoela ikusi
dugu herritarrok eta hainbat
egun egon ginen bainurik
hartu ezinik. Horregatik,
horrelakorik berriro ez gerta-
tzea espero dugu eta hau be-
rriro ez gertatzeko, hemendik
aurrera tentuz ibili beharko
dugu.

Azkenik, ibaia garbi eta ur-
din ikusi nahiko genuke, bai
guk, bai Orioko herritar guz-
tiok. Guztion ahaleginarekin,
espero dugu oriotarrek dugun
ametsa betetzea.

Pasa den hilabetean enpresa batek bere zaborra zuzenean ibaira jaurti zuen



Parke estalia Orion. Zergatik ez da egingo orain?



Aldizkari honetan, Orioko Udaleko EAJ alderdiari egokitu zaio Udalaren txoko honetarako gaia aukeratzeko ardura.

Beren esanetan, EAJ alderdiko ordezkariak hainbat batzordetara eraman izan dute herrian parke estalia egiteko iniziatiba, baina gaiak ez du aurrera egin. Zergatik?

2011. urtetik datorren gaia

Udalbatzarrak 2011. urteko irailaren 29an egin zuen bilkuran, Orain Herri Plataformak eta EAJk akordioa lortu zuten: Udalak bere jabetzako bi etxebizitza saldu zituen, eta diru horrekin ludoteka egitea adostu zen; soberan geratutako diruarekin parke estalia ere bai.

Mugimenduak aurreko legealdian

Aurreko legealdiaren amaieran, 2015 urteko otsailaren 26an Udalbatzarrak egindako ohiko bilkuran zehaz-

ki, ludoteka egiteko proiektu teknikoa eta baldintza administratiboak onartu ziren.

Ludotekarako 208.000 euro gastatzea adostu zen, eta diru partida osoaren soberakinarekin, 146.000 euro inguru, parke estalia egiteko erabiltzeko aukera jarri zen mahai gainean.

Hurrengo legealdiko hauteskunde kanpainenetan, Udaleko alderdi bat baino gehiagok sartu zuten proiektu hau beren programetan.

2016ko adostasuna

2016. urteko otsailaren 29ko ohiko bilkurako aktak, adostasun hau jasotzen du: "(...)alderdi guztiak ados dauden proiektua aurrera ematea onartu zen: herriko parke bat estaltzea(...)"

Gurasoen eskari publikoa 2017an

Orion haurrek jolasteko parkeak badauden arren, "negu partean iza-

ten den eguraldi txarragatik" herriko guraso talde batek sinadurak bildu zituen, Udalean parke estalia egiteko eskaera formala aurkezteko. Urte berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetzako proiektuen artean aukeratu zuen parke estaliarena, herritarren eta eragileen artean gauza zedin.

2018ko iraileko eskaria

2018ko irailaren 19an Obra eta Zerbitzuen batzordea egin zen. Bilera horretan, Orioko PSE-EEko zinegotziak parke estalia egiteko proiektua aukeratzeko eta gauzatzea 2019ko aurrekontuetan sartzea proposatu zuen, legealdia bukatu aurretik.

Azaldu bezala, azken urtetan parke estaliaren proiektua atzera eta aurrera ibili dute alderdi bateko zein besteko ordezkariak, baina akordio argirik lortu ez dutenez, oraindik ez da gauzatu.

**EAJ/PNV****Parke estaliaren alde**

Duela 7 urte ari da EAJ herrian parke estali baten alde lanean. Gainera ekimen hau bat dator herritarren eskaerekin, izan ere jolastoki estali bat izateko hainbat sinadura erregistratu dira udalean. 2017an herriko ekipamenduen egoera eta etorkizuneko beharren azterketa egiten da. Ondorio nagusiak, Anbulatorioa handitzea edo egokitzea eta parke bat estaltzearenak izan ziren. 2018ko uztailean AHO BATEZ onartzen da Baxoaldeko parkea dela egokiena estaltzeko eta ideien lehiaketa bat egiten ere. 2018 irailaren ordean, Bildu, Orain eta PSOEek ideien lehiaketa egitearen kontra bozkatzeko dute. Horretarako diru partidari ez dagoela eta elektoralista dela diote, nahiz eta proiektuarentzat nahikoa finantziario badagoela badakiten. Gure ustez, elektoralista dena, lanean ari denari bidean harriak jartzea da. Gaur egin daitekeena biharko uztea, gero gobernua dagoen alderdiari, egin ez izana aurpegiatzeko. EAJ-PNV parke estalia egitearen alde dago. Horrelako ekimenak oztopatzea udal ordezkariak izan behar duten zerbitzu publiko izaeraren kontra doa.

**ORAIN****Zergatik orain arte ez?**

Orain taldeak Kakioko etxebizitzak egiteagatik Udaltxeari zegokion dirua ludoteka egiteko eta geratzen zen dirua parke estali baterako bideratzea lortu zuen onartzea, EAJrekin adostuta 2011ko irailaren 29ko Udalbatzarrean. 2014ko ekainaren 4ean, Kakioko etxebizitzak saltzeagatik, 354.025,14 euroko diru-sarrerara (RI:336/2014) egin zen. Ludoteka 2015eko azaroaren 6an inauguratu zen. 2016ko eta 2017ko aurrekontuetan parkea sartzeko eskatu genuen. Urte horietan inbertsioetarako zeuden diru-kopuruen %42 eta %43 ez ziren gastatu, biak batuta 1.280.726 euro. Adibidez, anbulatorioko atea ez da aldatu. 2018ko irailaren 19ko Obra eta Zerbitzu batzordean, PSEko zinegotziak proiektua aukeratzea eta egitea 2019ko aurrekontuetan jartzea proposatu zuen eta Orain taldeari, gauden garaitan egonda, ondo iruditu zitzaion. Zergatik orain arte ez?

**EH BILDU****Seriotasunetik, parke estalia 2019an**

Parke estaliak 250.000 euro inguruko aurrekontua du, eta 2018ko aurrekontuetan ez dago inolako partidari horretarako; beraz, errealistak izateko, 2019ko aurrekontuetan adostu beharreko gaia da hau. Asken hiru urte hauetan parke estaliaren gaia EAJren agendatik kanpo egon ondoren, orain ideia-lehiaketa bat egitea proposatu du. Zertarako? Hemendik bost bat hilabetera, udal hauteskundeetan atarian, hiru edo lau proposamen mahai gainean izanda, guztiona den egitasmo bat monopolizatzen. Hauteskunde kutsuz egindako proposamen horrekin legealdi osoan erakutsi dituen gabezia guztiak estali nahi ditu EAJk. Alderdikerien eta irakurketa interesatuen gaitetik, 2019ko aurrekontuetan beharrezko diru-baliabideak jarri eta parke estaliko lanak ahalik eta azkarren hasteko konpromisoa izan zen oposizio alderdi guztiak emandako erantzuna.

**PSE-EE****8.000 euro pikutara... Ez!**

Orioko Udaleko oposizioko alderdiok, EH Bildu, Orain eta PSE-EE, ezezkoa eman diogu, hirugarren aldiz, 8.000 euro alperrik gastatzeari; diru horrekin, Udala Gobernuak proiektu lehiaketa bat jarri nahi du martxan, parke estalia egiteko proposamen ezberdinak biltzeko. Auditoriumeko ideiekin gertatu zen bezala, proiektu horiek bazter batean hautsa hartzen bukatzeko arriskua ikusi dugu. Hauxe da Udalean ikasten den lehen ikasgaia: proiektu bat gauzatu nahi bada, proposamen horrek aurrekontuetan sartuta egon behar du, eta derrigor, hori gauzatzeko diru kopuru osoa lortu behar da. EAJk 2016, 2017 eta 2018 urteetako aurrekontuetan parke estaliarentzat 200.000 euroko diru partida txertatzeko aukera izan du, baina ez du egin. Horregatik harritu gara orain, legealdiaren amaieran, 8.000 euroko gastua izango lukeen lehiaketa bat egitea proposatu dutenean. EAJk parke estalia egiteko benetako borondatea badu, serio heldu behar dio gaiari; horretarako bide bakarra, obrak izango duen kostu osoa 2019ko aurrekontuetan txertatzea da. Horrela bakarrik egingo da oriotar askok eskatzen duten parkea.

Salatxoren kontzertu berezia azaroaren 24an, abesbatzaren 25.urteurrena ospatzeko



Aurtengo Santa Zezilia eguna, azaroaren 22a, berez dena baino egun seinalatuagoa izango da Orioko Salatxo abesbatzako kideentzat: koruak 25 urte beteko ditu egun horretan bertan. Urteurrena dela eta, azken hilabeteak bereziak izan dira haientzat: Salaman-cara bidaia ederra egin zuten kontzertua ematera, sanpedroetan La Jodedera taldearekin batera dantzan jarri zituzten herritarrek, itsasertzeko euskal kantak bilduko dituen Biga proiekturako ere egin zituzten grabaketak... Koruko zuzendaritzatik azaldu dutenez,

taldekideak oso gustura daude aurten egin dituzten jarduerekin: *Salatxo abesbatzak urtero eman ditu kontzertuak bere sorreratik, baina 2018an, ahal izan dugun neurrian, gauza bereziagoak egingen saiatu gara, 25. urteurrena ospatzeko.* 1993an sortu zenetik gaur arte, herritar ugari pasa da korutik, eta beren jardunak ez du etenik izan; hori dela eta, urte guztiotan ia 400 abestiko erreperatorioa lantzea lortu dute. Urteurrena borobiltzeko, kontzertu berezia emango du abesbatzak azaroaren 24an, larunbatarekin. Karela

kiroldegian izango den emanaldian, urteotan bidelagun izan dituzten musikari batzuk ere parte hartuko dute, eta *kontzertua ederra izango da*, koruko zuzendaritzako ordezkariak agindu dutenez. Besteak beste, haiekin izango dira oholtzan Asier Gozategi, Xabier Lizaso, Danbolin musika eskolako ikasleak, Harribil dantza taldeko kideak, Olatz Zugasti eta Joxean Pascual organojolea. Oraindik ez dute programa zeharo itxita, eta beste gonbidaturen baten presentzia ere izateko aukera zabalik dute.

25.urteurreneko kontzerturako Salatxo abeslariak erreperatorioa egokitzen ari dira, eta kantu berrienak aspaldi abestu gabekoekin uztartuko dituzte. Azaldu dutenez, musikaz gain ikus-entzunezkoen proiektzioak ere izango dira; batez ere, argazki zaharrak erakutsiko dituzte.

Salatxo herriko hainbat talderekin eta eragilerekin aritu da elkarlanean urte guztiotan. Urteurreneko kontzerturako hilabete baino falta ez denean, emanaldira azaltzera gonbidatu dituzte oriotar guztiak, herri mailako ospakizuna izan dadin.

Festak

San Martin jaiak Aiako Urdaneta auzoan, azaroaren 3tik 11ra



Azaroaren 3an, larunbatarekin, emango zaie hasiera San Martin jaiak Aiako Urdaneta auzoan. Antolatzaileek egitarau oparoa prestatu dute, eta bost festa egunetan izango da zer gozatua. Besteak beste, festen lehen egunean ume-jolasak, bertso afaria eta kalejira. Bigarrenegun, Meza nagusia, pala txapelketako finalak, herri kirolak, bazkaria, bertso eta trikiti saioa, kalejira eta eromeria. Hirugarrenegun, Azaroak 9, mus txapelketa azkarra. Laugarrenegun, Azaroak 10, diana egunsentian eta oilasko biltzea, bazkaria, kalejira, auzotarren afaria eta eromeria. Festen azken egunean, Meza nagusia, eskuz binakako pilota finalak, herri kirol jaialdia, idi demak, eromeria, patata dantza lehiaketa, eta jarraian, festei bukaera emateko, traka zaratsua.



Festak

San Martin jaiak ospatuko dira Ortzaika auzoan, azaroaren 9tik 18ra bitartean

Orioko Ortzaika auzoan, sanmartinak ospatuko dira azaroaren 9tik 18ra bitartean. Hau da auzoko festa batzordeak antolatatu duen egitaraua:

Azaroak 10, larunbata

- 17:00. Ume-jolasak, Nikonok pailazoaren ikuskizuna eta txokolatada.
- Iluntzean. Erromeri afaria Lizaso eta Sarriegi bertsolariekin eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin.

Azaroak 11, igandea

- 10:30. Meza.
- Ondoren. Hamaiketako Oliden Jatetexean Agin Laburu eta Nerea Elustondo bertsolariekin.
- Arratsaldean. Auzoko bi talderen arteko desafioa. 17:00etan estropada, eta 18:00etan herri-kirol norgehiagoka.
- Ondoren. Berbena Izer eta Alabier trikitilariekin.

Azaroak 16, ostirala

- 22:00. Mus txapelketan izena-ematea.
- 22:30. Mus Txapelketa.
- 23:30. Bide Batez taldearen kontzertua
- 01:30. DJ Aros.



Azaroak 17, larunbata

- 05:00. Baratxuri zopa.
- 06:00. Oilasko biltzea.
- 21:00. Oilasko biltzeko afaria.

Azaroak 18, igandea

- 12:00. Herri-kirolak. Aizkoran Arrillatarrak eta harri-jasotzen Ostolazaren Eskolako kideak



Idi probak

Aiako XIX. Kintopeko idi probak, azaroaren 1, 3 eta 5ean

Datorren astean Aiako XIX. Kintopeko Idi Probak jokatuko dira. Azaroaren 1ean abiatuko dute txapelketa, eta bederatzi idi-pare gaztek parte hartuko dute. Ohitura zaharari jarraituz, 22:00etan hasiko dira egunero idi probak.

Idiek 1.800 kiloko harria gehi 100 gramoko gainzamarekin lan egin beharko dute, eta Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak kontrolatuko du proba. Egitaraua:

- Azaroak 1: Endika Aurrekoetxea, Ipañarrieta eta Taberna Goietas.
- Azaroak 3: Rafa Alegria, Lopategi, Iñigo Aurrekoetxea
- Azaroak 5: Isidro Erretegia, Jesus Garayar, Iñaki Oliden



AZOKA

Iragarkietarako txokoa.

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

• Logela alokagai Orion Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du.

• Tf: 652551507.

Salgai

• Aiako babarrun beltza saltzen da, 5€ kilo. Tf: 636312231.

Lan eskaera

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut.

Tf: 638730544.

• Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten...Gaztelera, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit.

Tf: 612488307

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak Asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia duena eta erreferentziakin.

Tf: 661133295

• Neska bat lan bila Esperientzia zabala adinekoen zaintzan eta garbiketa lanetan. Paperak behar bezala ditut.

Tf: 674123293

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umekin esperientzia handikoa.

Tf: 636312231

• Neska lan bila Barnezaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin.

Tf: 632582365.

• LH-ko gradua egiten ari den neska oriotarra, LH-ko ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein irakasgai. EGA (euskara) eta FIRST (ingeleza) agiriak ditut. Rut Atxega.

Tf: 678083496.

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	10:22 eta 23:18	03:52 eta 16:46	☾
02	11:49 eta ____	05:16 eta 18:07	☾
03	00:38 eta 13:01	06:33 eta 19:14	☾
04	01:40 eta 13:59	07:35 eta 20:08	☾
05	02:31 eta 14:48	08:27 eta 20:55	☾
06	03:14 eta 15:32	09:12 eta 21:36	☾
07	03:54 eta 16:12	09:53 eta 22:14	☾
08	04:31 eta 16:50	10:33 eta 22:51	☾
09	05:07 eta 17:26	11:11 eta 23:26	☾
10	05:42 eta 18:02	11:48 eta ____	☾
11	06:18 eta 18:39	00:02 eta 12:27	☾
12	06:55 eta 19:19	00:40 eta 13:08	☾
13	07:36 eta 20:05	01:20 eta 13:53	☾
14	08:25 eta 21:03	02:07 eta 14:48	☾
15	09:28 eta 22:18	03:05 eta 15:54	☾
16	10:45 eta 23:39	04:17 eta 17:08	☾
17	12:00 eta ____	05:32 eta 18:15	☾
18	00:44 eta 12:59	05:36 eta 19:09	☾
19	01:33 eta 13:46	07:27 eta 19:53	☾
20	05:26 eta 17:44	09:10 eta 20:33	☾
21	02:13 eta 14:27	08:50 eta 21:11	☾
22	02:51 eta 15:05	09:29 eta 21:49	☾
23	03:27 eta 15:43	10:08 eta 22:27	☾
24	04:04 eta 16:22	10:49 eta 23:08	☾
25	04:42 eta 17:03	11:32 eta 23:50	☾
26	05:22 eta 17:45	12:18 eta ____	☾
27	06:05 eta 18:32	00:37 eta 13:09	☾
28	06:53 eta 19:24	01:28 eta 14:06	☾
29	08:51 eta 21:36	02:27 eta 15:12	☾
30	02:25 eta 14:49	03:36 eta 16:27	☾

ZAINZAKO BOTIKAK

AZAROA:

- 1ean, Etxeberria
- 2an, Lasa
- 3an eta 4an, Izpizua
- 5ean, Gaminde
- 6an, Larrañaga
- 7an, Iturria
- 8an, Esparza
- 9an, Izpizua
- 10ean eta 11n, Gallo
- 12an, Larrañaga
- 13an, Iturria
- 14an, Etxeberria
- 15ean, Izpizua
- 16an, Lasa
- 17an eta 18an, Zulaika
- 19an, Lasa
- 20an, Gaminde
- 21ean, Izpizua
- 22an, Gallo
- 23an, Zulaika
- 24an eta 25ean, Iriarte
- 26tik 30era, Lasa

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17,

943 83 23 98 Zarautz

Esparza: Santuturri plaza, 5-6

943 50 47 83 Zarautz

Iturria Mutiozabal: Kale

Nagusia, 12,

943 83 29 70 Zarautz

Izpizua: Urdaneta, 8,

943 13 31 83 Zarautz

Larrañaga: San Francisco, 16,

943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko Plaza

943 83 09 36

Gaminde: Gipuzkoa Kalea, 68,

943 13 29 83 Zarautz

Gallo: Zigorria kalea, 17

943 13 40 19 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943 13 39 94 Zarautz



Orio

Bingoa

• Asteazkenero, 16:30etik aurrera, kultur etxeko areto nagusian.

Ipuin Kontalaria

- Azaroaren 13an, Josu Bengoa ipuin kontalaria, liburutegian, 18:00etan. 5 eta 8 urte bitartekoentzat.
- Azaroaren 19an, Mirian Mendoza ipuin kontalaria, liburutegia, 18:00etan. 3 eta 5 urte bitartekoentzat.

Santa Zezilia Eguna

• Azaroaren 22an, Santa Zezilia Egune-ko kalejira, Danbolin Musika Eskolaren eskutik.

'Motxiladun umeak'

• Azaroaren 19tik 23ra, *Motxiladun Umeak* erakusketa, kultur etxeko areto nagusian.

San Martin jaiak Ortzaikan

• Azaroaren 10ean, ostegunean, hasiko dira Ortzaikako Sanmartinak.

Mandalara Taldea

- Azaroaren 17an, 'Artilezko Mandalak Ehuntzen' tailerra, Mandalara elkartean.
- Azaroaren 25ean, 'Aloe Vera, mila erabilpenen landarea' tailerra, Mandalara elkartean.
- Mandalara Jardunaldiak 2018: urriaren 26an, ostiralean, 19:00etan, Toti Martinez de Lezearen eta Emilio Ariasen (trobadorea) 'Beste Santiago Bidea' hitzaldia; urriaren 27an, larunbata, Arantxi del Rio 'Ongi jaten ikasten' (11:00etan), eta Vicent Guillem doktoarearen eskutik, 'Estresaren eta depresioaren eragina osasunean' (17:00etan); 28, igandea, M^aCarmen

Astigarragarekin, 'Gurekin bizi diren animaliak, garenaren isla', 11:00etan, eta, 17:00etan, Iñaki Carretero ipuin kontalaria izango da familia artean. Ekitaldi guztiak doan, Arraunetxen.

Aia

Erromeria Aristerrazun

• Urriaren 28an, igandean, Izer eta Alebierren emanaldia.

Idi Probak

• XIX. Kintopeko Idi Probak jokatu dira azaroaren 1ean, 3an eta 5ean, dema plazan.

Argazki erakusketa

• Azaroaren 2ra arte, Aiako XIII. Argazki lehiaketa kultur etxean.

Zer esango zenioke etorkizuneko zure ni-ari?

FutureNi.eus

Nola indikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolako izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.

ADINBERRI
OSASUNTU SAHATSIKO ERKATEGIA

Etorbizuna
Prestazio Berri
de Gurekin

ETORKIZUNA IRAIKIZ



Oteiza Museoa
2018/10/20

